

# Zer da dislexia?

Hamar pertsonatik batek dislexia duela diote ikerketek. Kultura guztietan ageri da dislexia, baita gaitasun eta egoera gama orotan ere. Familian izan ohi du jatorria maiz. Sendabiderik ez duen arren, praktika ugari baliatu daitezke oztopoak gainditzeko. Dislexia duen pertsonaren ikaskuntza prozesua bestelakoa da; bere garunak modu desberdinean heltzen dio informazioari, beste pertsona batzuekin alderatuz gero. Pertsona bakoitzaren komunikatzeko moduan eragin dezake dislexiak. Ez da irakurketa eta idazketara mugatzen, eta ez du zerikusirik adimenarekin.

**Ikaskuntzarako Zailtasun Espezifikotzat jotzen du dislexia espainiar estatuak**

(<https://www.mecd.gob.es/dam/jcr:4f7e9108-88bc-4bf6-b188-34dd6d2c2a7f/atencion-alumnado-dislexia.pdf>).

Ez bada identifikatzen, autoestimu baxua, estresa, portaera arazoak eta errendimendu baxua eragin ditzake. Euskarri aproposarekin, berriz, dislexia duten haur zein helduek bere ahalmen guztia erdietsi dezakete. Dislexia duten ikasleek etekina ateratzen diote identifikazio goiztarrari, esku-hartze egokiari eta eraginkorra den irakaskuntza bideratuari. Bestalde, dislexia duten helduentzat onuragarriak dira lanean egindako zentzuzko doikuntzak; laguntza-teknologia erabiltzeko aukera, esaterako.

## Dislexiarekin erlazionatutako indarguneak

Zeregin praktikoak egiteko sormen eta gaitasun handia izan dezake.

Pentsamendu bisualerako trebetasun handia; plano batetik abiatuta egitura bat irudikatzen gaitasuna, adibidez.

Ahozko abilezia eta interakzio sozialerako iaiotasuna.

Problema ebazten trebea: beste modu batera pentsatuz, sormenez baliatuz, ikuspegi berri batetik irudi osoa ikusiz.



## Dislexiarekin erlazionatutako zailtasunak

Arazoak irakurtzeko, oharrak hartzeko, eta zenbakiak, izenak eta xehetasunak gogoratzeko.

Arazoak denborarekin, lanaren antolaketarekin eta proiektuen kudeaketarekin.

Zailtasunak ortografiarekin eta idazketarekin.

Epe laburreko memoriarekin arazoak eta zailtasunak segidekin, jarraibideak edo helbideak jarraitzerako orduan, esaterako.

**Garrantzitsua da azpimarratzea dislexia duen pertsona bakoitza bakarra dela; hortaz, ez ditu ezinbestean aurrez aipaturiko ezaugarri guztiak pairatuko. Pertsona bakoitzak indargune, zailtasun eta estrategia propioak ditu, berarentzat baliagarriak direnak, hain zuzen ere.**

Irakurketaren, idazketaren edota letreiatzearen ikaskuntza prozesuan ageri diren zailtasunen continuum gisa deskriba daiteke dislexia; ikaskuntza aukera egokiez hornitu arren, bere horretan jarraitzen duena. Askotan, zailtasun horiek ez dituzte pertsonaren gaitasun kognitiboak islatzen; era berean, baliteke bat ez etortzea beste esparru batzuetan duen errendimenduari. Ikaskuntza eta irakaskuntza inguruaren arabera, dislexiak ikaskuntzan duen eragina aldakorra da, elkarren artean erlazionatuta dauden zailtasunak agertzen baitira sarri.

(Dislexia Scotland-en web orrian aurki dezakezu definizio osoa).

Dislexiaren Nazioarteko Elkarteak (IDA) honela definitu du: Ikaskuntza Arazo Espezifikoa da dislexia, jatorri neurobiologikoa duena. Hitzak antzemateko doitasun eta arintasunean eragiten du, baita deskodeketa eta letreiatze gaitasunetan ere. Zailtasun horiek lengoaiaren osagai fonologiko baten gabeziaren emaitza izan ohi dira, zeinean, askotan, ustekabekoa den beste gaitasun kognitiboekin eta klasean irakaskuntza eraginkorraren hornidurarekin alderatuta. Bigarren mailako ondorioen artean aurki ditzakegu irakur ulermenarekin arazoak eta irakurtzeko eskarmentu murrizta; hiztegiaren hazkundera eta oinarrizko ezagutza eragotzi ditzakete ondorio horiek.

### Zer behar du euskarri egoki batek?

Euskarri egoki batek kontuan izan beharko litzuke ikaskuntza estiloak eta dislexia duen pertsona bakoitzaren beharrak, bere adina edozein dela ere. Irtenbideak proposa ditzan galdera bat egiteak emaitza simple baina eraginkorrak eragin ditzake zenbaitetan. Lagungarriak izan daitezkeen praktikak:

- Identifikazio goiztiarra eta lehenbailehen euskarri egoki baten hornidura
- Irakurketa eta idazketa jardueretan gelakideen babesa
- Proiektuak kudeatzerako orduan, mapa mentalen eta fluxu-diagramen erabilera
- Ohiko jarraibide eta zereginak grafikotan xehatzea
- Gardenkien eta koloreztatutako paperen erabilera
- Informazioa irakurtzeko, idazteko eta grabatzeko laguntza-teknologia

“Informazio gehiago eskura dezakezu jarraian ageri diren web orrietan”

- Nicola Brunswick-en “Dyslexia: A Beginner’s Guide”
- Dyslexia Scotland-ek eginiko “Dyslexia and Us: istorio pertsonalen bilduma”
- Dyslexia Scotlankdek dislexiaren inguruko informazioa biltzen duten liburuxka ugari sortu ditu. [www.dyslexiascotland.org.uk/our-leaflets](http://www.dyslexiascotland.org.uk/our-leaflets) helbidean aurki daitezke. Euskaraz eta gazteleraz eskuratu ahal izateko, jo [www.dislegi.eus](http://www.dislegi.eus) eta <http://plataformadislexia.org/> helbideetara.